

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MOREDA ARABAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea zaborren tasaren 2020ko zerga errolda eta kobratzeko moduan jartzea**

Behin-behineko onespena eman zaiolarik Moreda Arabako zaborren tasaren 2020ko erroldari, espedientea jendaurrean jartzen da udal idazkaritzan, hamabost egun baliodunez, iragarki hau iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera egon dadin aztertzeko eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea ekainaren 25etik abuztuaren 25era izango da, egun biak barne.

Ordainketa inolako kreditu erakundetan helbideratu ez duten zergadunek udalak Kutxabanken daukan kontuan ordaindu beharko dute.

Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Moreda Arabako Udalean izapidetuko direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekaruak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2020ko maiatzaren 25a

*Alkatea*

*MIGUEL ÁNGEL BUJANDA FERNÁNDEZ*